

**ANTOLAKUNTZA- ETA IHARDUERA-ARAUDIAREN
EREDUAK**

I. IKASTETXEKO ORGANOAK

1. ZUZENDARITZA-ORGANOAK.

1. Umandi Ikastola Publikoa ikastetxeak ondoko zuzendaritza-organoak izango ditu:

a) Taldeko organoak:

- Ordezkaritza-organo gorena, Eskola Kontseilua izena izango duena.
- OOGko batzordeak, iraunkorra eta ekonomikoa izango dira.
- klaustroa.
- zuzendaritza-taldea.

b) Lagun bakarreko organoak:

- Zuzendaria.
- ikasketa-buruak.
- idazkaria.
- administraria.

A. TALDEKO ORGANOAK

1.1. Ikastetxeko Eskola Kontseiluaz

1.1.1 Ikastetxeko Eskola Kontseilua honako kideek osatuko dute:

- a) Zuzendariak.
- b) Ikasketa-buruak.
- c) Irakasleen 10 ordezkariak.
- d) Gurasoen 15 ordezkariak.
- e) Administrazio eta zerbitzuetarako pertsonalaren ordezkari batek.
- f) Udaltzatzen ordezkari batek.
- g) Idazkariak, hizpidez eta boturik gabe.

1.1.2 Eskola kontseiluaren funtzioak Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeko 31.2. atalean jasotakoak dira.

a) Ikastetxeko hezkuntz proiektua, antolaketa eta funtzionamendu araudia eta gestio proiektua onartu, betetzen direla arduratuz eta 28.3. artikuluan azaltzen den moduan bere ebaluaketa eginaz.

b) Ikastetxeko urteko plangintza onartu, beti ere 35.2.a) artikulok dioenaren aurka egon gabe.

c) Ikastetxeko formakuntza iharduerak, eskolaz kanpoko nahiz osagarriak diren ekintzak eta gestio egitaraua onartu, bere jarraipena eta aldizkako ebaluaketa bereganatuz.

d) Ikastetxeko urteko memoria onartu.

e) Klaustroaren proposamenaz Zuzendaria aukeratu eta beronen proposamenaz Ikastetxeko

beste aginte organoak. Halaber, Zuzendariaren izendatzea atzera eman dezake edo eta

berorren izendatzea eten.

f) Ikaslegoaren onarpena erabaki, indarrean dagoen legediari lotuz.

g) Auziak konpondu eta ikaslegoaren artean disziplina arloari dagokion arloak zigorrak arautu, beti ere berauen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen arautegia kontutan izanik.

h) Beste ikastetxeko harremanak eratu hezkuntz edo kultural helburuak sendotzeko.

i) Eskolako ekipo zein instalakuntzen berrikuntza bultzatu, eta era berean bere kontserbazioa zaindu.

j) Ikastetxearen iharduera gainbegiratu aspektu administratibo zein dozentetan.

k) Ikastetxeko antolakuntza eta iharduera araudiaren, lege honek edo beste arauak esleitu dezaken beste edozein kompetentzia.

l) Hutsak baleude, erabaki beti ere era kontsentsuatu batetan nola bete huts horiek.

3. Dituen funtzioak bete ahal izateko honakoak egin ditzake Eskola Kontseiluak laguntzak

eskuratzeko:

a) Bereziki interesgarriak diren gaietan, eskola-komunitateko talde ezberdinen partaidetza

organoen aburua eskatzea.

b) Egonkorak edo unean-unekoak diren batzordeak eratzea.

c) Laguntzako zerbitzuei, ikuskaritzari eta Administrazioari egoki iruditzen zaizkion txostenak

eta aholkuak eskatzea.

d) Hezkuntzako teknikariei azterlanak egiteko eskatzea.

4. Eskola Kontseilua kurtsoan zehar gutxienez hiru aldiz bilduko da.

Ikasturtearen hasieran,saio horretan Urteko plana eztabaidatu eta onartuko duelarik, eta

ikasturtearen bukaeran, saio horretan Urteko memoria aztertu eta onartuko duelarik. Horretaz gain, batzorde iraunkorrak erabakitzen duen guztietan edo Eskola Kontseiluko kideen heren batek eskatzen duenean ere bilduko da. Idazkariak iritsitako akordioen akta egingo du.

5. Zuzendariak egingo du Eskola Kontseilua biltzeko deialdia, data, ordua eta gai-zerrenda adieraziko dituelarik. Batzorde iraunkorrari dagokio gai-zerrendako gaiak zehaztea, bai hala nahi duelako eta baita irakas-taldeek , irakasleek , gurasoek edo ikasleek eskatu diotelako ere. Zuzendaritza-taldeari dagokio Eskola Kontseiluak gaiak eztabaidatu eta erabaki ahal izateko beharrezkoa den informazioa luzatzea.

6.Eskola Kontseiluko kideek eta bertan osatzen diren batzordeetako kideek ez dute nahitaezko

agindurik izango beren ordezkari-talanean, baldin eta garrantzi handiko gai bat denean, proposamena organu kolegiatu ezberdinetara eramango da, erabakia Eskola kontseilura eramanaz. Alor bakoitzeko ordezkariak Eskola Kontseiluan burututako

berri eman behar diote dagokion taldeko organoari; halaber, egin nahi dituzten proposamenak jakinarazi behar dizkiote. Pertsona jakinei kalteren bat sor diezaioketen arazoak isilpean gorde beharko dituzte.

7. Eskola Kontseiluak edo hori osatzen duen edozein batzordek aztertu beharreko dokumentue Eskola Kontseiluko kideen esku egon behar dute saioa ospatu aurretik. Urteko planaren eta Urteko memoriaren proposamena, onartu baino gutxienez denbora nahikoz jasoko dituzte Eskola Kontseiluko kideek.

8. Eskola Kontseilua osatzen duten taldeetako ordezkariak ordezkatuaren esanetara egongo dira, Eskola Kontseiluan eztabaidatuko diren gaiak eta hartutako akordioei buruzko informazioa emateko eta baita bertan egin nahi dituzten proposamenak biltzeko ere. Taldeetako ordezkariak gai garrantzitsuei buruzko informazioa eman beharko die klaustroari eta gurasoen batzarrari.

3.1. Eskola Kontseiluak zenbait funtzio edo eginkizun zehatz burutzeko batzordeak sortzeko eskumena izango du, beti ere Eskola Kontseiluak adierazitakoaren arabera.

2. Hiru batzorde egonkor eratuko dira:

- a) Batzorde iraunkorra.
- b) Ekonomi batzordea.
- c) Elkarbizitza-batzordea.

3. Eskola Kontseiluak eratzen dituen batzorde egonkorak edo unean-unekoak ondoko kideak osatuko dituzte:

Batzorde iraunkorra

- a) Zuzendaritza-Taldeko kide batek, batzordeko buru izango delarik. (Zuzendaria)
- b) 2 irakaslek, irakasleak Eskola Kontseiluan dituen ordezkarien artean hautatutakoak.
- c) 3 gurasok, gurasoek Eskola Kontseiluan dituzten ordezkarien artean hautatutakoak.
- d) 2 ikaslek, ikasleak Eskola Kontseiluan dituen ordezkarien artean hautatutakoak.
- e) Udalbatzaren ordezkari bat.

Batzorde ekonomikoa

- a) Zuzendaritza Taldeko kide batek, batzorde buru izango delarik. (Idazkaria)
- b) 2 irakaslek, irakasleak Eskola Kontseiluan dituen ordezkarien artean hautatutakoak.
- c) 3 gurasok, gurasoek Eskola Kontseiluan dituzten ordezkarien artean hautatutakoak.

Elkarbizitarako batzordea

a) Zuzendaritza-Taldeko kide batek, batzorde buru izango delarik (Ikasketaburua)

b) Irakasle bat, irakaslegoak Eskola Kontseiluan dituen ordezkarien artean hautatutakoak.

c) 2 gurasok, gurasoek Eskola Kontseiluan dituen ordezkarien artean hautatutakoak.

d) 2 ikasle, ikaslegoak Eskola Kontseiluan dituen ordezkarien artean hautatutakoak.

Eskola Kontseiluak sortu ahal izango ditu batzorde puntualak beste kide batzuekin, klaustroak, guraso elkarteak eta ikasle elkarteak, sektore bakoitzak bere kideak aukeratuko dituelarik.

4. Eskola Kontseiluak zehaztuko du eratzten diren batzorde egonkor edo unean uneko batzordeen lanerako planak. Batzordeek burututako ihardueren berri eman behar diote OOGari organo horrek ospatutako saio bakoitzean.

4. Zuzendaria izango da Batzorde iraunkorraren burua. Batzorde iraunkorrak honako funtzio hauek izango ditu:

a) Kudeaketa-proiektua, prestakuntzarako ihardueren eta iharduera osagarri nahiz

eskolaz kanpoko ihardueren programa eta urteko kudeaketa-programa lantzea, gero

Eskola Kontseiluak onar dezan.

b) Urteko memoriaren zirriborroa egitea, Eskola Kontseiluak eztabaida dezan.

c) Eskola Kontseiluko bilkuren gai-zerrenda prestatzea eta gaiak eztabaidatzeko

dokumentazioa eskura izatea.

d) Eskola Kontseiluaren berezko funtzioak bere gain hartzea, hots, "ikastetxearen

iharduera orokorra ganbegiratzea, administrazio eta hezkuntza alorrari dagokienez" eta

Urteko planaren jarraiketa burutzea, bereziki prestakuntza-ihardueren, eskolaz kanpoko

ihardueren eta iharduera osagarrien programarena.

e) Gairen bat garrantzitsua iruditzen bazaio, bere eskumenekoa izan arren, erabakiak

hartu aurretik eskola-komunitatearen iritzia berri jakin nahi badu, Zuzendaritza

Taldearen kontsulta-organo gisa aritzea.

f) Eskola Kontseiluak agindutako funtzioak eta eginkizunak betetzea.

5. Idazkaria izango da Ekonomi batzordearen burua. Ekonomi batzordeak aurrekontuen eta

gastuen likidazioaren zirriborroa egingo du, ikastetxearen ekonomi kudeaketaren jarraiketa

burutuko du eta instalazio nahiz ekipamenduekin zerikusia duten gaiak bideratuko ditu.

Aipatutakoaz landa, batzorde horretako kide izango dira Administratzailea eta Baliabide

didaktikoen zerbitzuko arduraduna.

6. Ikasketa-burua izango da Elkarbizitza-batzordearen buru. Batzorde hori eskolako elkarbizitzaz

arduratuko da, hau da, elkarbizitza hobetzeko proposamenak egingo ditu eta gerta daitezkeen

arazoei aurrea hartuko die. Horretaz gain, hutsegite larriak ere aztertuko ditu, zigorrak jartzeko

proposamena Eskola Kontseiluari luzatuko diolarik, Araudi honetan jasotakoaren arabera.

Batzorde honetako kide izango dira, halaber, Orientabide-zerbitzuaren arduraduna eta, ikasle

baten jokabidea aztertu behar denean, tutorea.

1.2. Irakasle-klaustroaz.

7.1. Irakasle-klaustroa irakasleek ikastetxean duten berezko partaidetza-organoa da. Bertan lan egiten duten irakasle guztiek osatuko dute eta Ikastetxeko Zuzendaria izango da burua. Baita ere, klaustrokide izateko eskubidea izango dute Ikastetxeko laguntza pertsonalgo osoa abotsa eta botoarekin, baldin eta Ikastolan egonkortasuna balego.

2. Klaustroak, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak bere 35.2 eta 35.3 ataletan esleitzen

dizkion funtzioak izango ditu.

a) Ikastetxeko proiektu kurrikularra eta aktibitate dozenteen egitaraua, Eskola Kontseiluaren

aldez aurreko txostena ikusi ondoren. Halaber, Eskola Kontseilua, Ikastetxeko hezkuntz

proiektora egokitzen den ala ez arduratuko da.

b) Eskola Kontseilua informatu aktibitate dozenteen betetzeaz, beronek urteko memoria egin

dezan.

c) Ikasleen ebaluaketa eta errekeraketa lanetarako kriterioak zehaztu eta koordinatu.

d) Ikaslegoaren tutoretza eta orientabide funtzioak zuzendu eta planifikatu.

e) Ikastetxean ikerketa eta esperimentazio pedagogiko arlotan garatzeko inizatibak garatu.

f) Funtzionamendu arautegia onartu.

g) Beti ere 36.3 artikulok dioenaren arauetan, Irakaslegoaren formakuntzarako eskolaz

kanpoko eta osagarriak diren aktibitate egitarauaz informatu, Eskola Kontseiluak onartu

aurretik.

h) Irakaslegoaren klaustroak bere ordezkariak aukeratuko ditu, era berean Zuzendaria,

Ikasketa burua eta Idazkaria aukeratuko dituelarik Eskola Kontseiluan aurrean proposatzeko.

3. Zuzendariak Klaustorako deialdia egingo du, gai-zerrenda adieraziz. Zuzendaritza

-Taldeari dagokio gai-zerrenda zehaztea, bere ekimenez nahiz irakas-taldeek edo irakasleek

eskatuta, eta Klaustroko eztabaidarako eta erabakiak hartzeko beharrezko informazioak eskaini

beharko ditu.

4. Klaustroak, bere eskumen-esparruan, hasieran eztabaidatu egingo du Zuzendaritza-Taldeak

planteatzen dituen gaiei heltzeko erabiliko dituen irizpideak definitzeko; irizpideok garatu edo

zehaztuko dituen proposamena edo proposamenak lantzeaz arduratuko den taldea edo pertsona

hautatuko du; azkenik, bilkura erabakitzailean, aurkezten zaizkion proposamenak kontuan

hartuta, dagozkion erabakiak hartuko ditu.

5. Erabakiak bozketa sekretuan hartuko dira, emandako bozketen %60 nahikotzat emango

delarik. Gai batzutan bere garrantziarengatik klaustroak beharrezkoa ikusten badu, beti ere

aurreko prozedura bera jarraiki, % bat ezarri ahalko da emandako bozketen %75a ezin izango

duelarik gainditu akordioak hartu ahal izateko.

Organu honetan hartutako akordioak errespetatuak eta bultzatuak izango dira kide guztien

aldetik.

6. Ikasturtearen hasieran, ikasturtean zehar ikastetxean izango duen antolaketa onesteko eta

irakas-ihardueren programa ontzat emateko bilduko da; ikasturtearen amaieran, urteroko

Memoriarako ekarpen gisa, ikasturtearen garapenari buruz bere txostena lantzeko eta hurrengo

ikasturteko irakas-ihardueren programan sartuko diren proiektu didaktikoak definitzeko bilduko

da.

7. Ikastetxearen Curriculum-Proiektuaren eta Ikastetxearen urteko planeko irakas-ihardueren

programaren lanketan, berau praktikan jartzearen koordinazioan, ebaluazioan eta aldakuntzetan,

Klaustroak Zikloetako Koordinatzaileak lan-taldetzat edukiko du, irakas-taldeen proposamenak jasoko dituena.

8. Irakasle-klaustroa gutxienez hilabetero bilduko da. Era berean, Zuzendariak edo Zuzendaritza-Taldeak erabaki edo irakaslegoaren herenak eskatzen duen guztietan bilduko da.

Idazkariak hartutako akordioen akta egingo du.

1.3. Zuzendaritza-Taldeaz.

8. 1. Zuzendaritza-Taldea Zuzendariak, Ikasketa-Buruak eta Idazkariak osatuko dute.

2. Zuzendaritza-Taldeari dagozkio Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 36,2

atalean esleitutako funtzioak eta, gainera, ikastetxearen irakas-praktikan curriculum-proiektua betearaztea.

a) Ikastetxeko koordinaketa eta zuzendaritza lanetan, kriterioak hartzerakoan zein garrantzi handiko funtzionamenduari dagozkion gaietan Zuzendaria lagundu.

b) Gestio proiektua, formakuntza, eskolaz kanpoko eta osagarrien egitarauak eratu; halaber, urteroko gestio programa ere landuko du, guzti hauek ondoren Eskola Kontseiluak onartu ditzan.

c) Aurreko atalean aipatutako programen betepena gainbegiratu eta koordinatu, Eskola Kontseilua informatu, beronek urteroko memoria onartu dezan.

d) Urteroko memoriaren zirriborroa eratu, Eskola Kontseiluak onartu dezan.

e) Euskal Eskola Publikoko beste ikastetxeekin lankidetzaren harremanak proposatu, eta beste zenbait proposamen formulatu Hezkuntza Administrazioari, beti ere beste erakundeekin helburu kulturalak edo hezkuntza xede duten konbenioak egiteko.

f) Ekipo dozentek antolatu eta ikasturte bakoitzaren hasieran irakasleak adskribitzeko kriterioen araueran irakasleak kokatu da. Halaber, ikastetxearen beharrak eta eskakizunak kontutan hartu.

g) Ikastetxeko praktika dozentean proiektu kurrikularraren betepena segurtatu.

3. Eskola-iharduna hiru esparrutan banatuko da, horietako bakoitza Taldeko kide baten

ardurapean

a) langileei eta kanpoko harremanei dagokien esparrua Zuzendariaren eskumena izango

da

b) pedagogiari eta hezkuntza-zerbitzuei dagokien esparrua, Ikasketa-Buruarena

c) administrazio, ekonomi eta eskola-zerbitzuei dagokien esparrua, Idazkariarena.

4. Zuzendaritza-Taldea kudeaketa-esparru desberdinen koordinazio-organoa izango da. Horretarako, kide bakoitzak bere eskumeneko esparruko ihardunen berri emango du, eta irizpide amankomunak eta ihardun guztiei koherentzia emateko moduak bilatuko dira.

5. Ohizko izaeraz, astean behin bilduko da. Ezohizko izaeraz, Zuzendariak erabaki edo Taldeko beste bi kideek eskatzen duten guztietan.

6. Zuzendaritza-Taldeari dagozkio ondoko zeregin hauek:

- Urteko planaren eta azken Memoriaren programen lanketa koordinatzea
- Urteko planaren martxaren jarraiketa egitea, irakas-ihardueren eta kudeaketaren programena batez ere
- Pedagogi Koordinaziorako Batzordearen txostenak eta proposamenak jasotzea eta nola abiarazi daitezkeen aztertzea
- Klaustroaren eta Eskola Kontseiluaren bilkuretako gai-zerrenda prestatzea
- Informazio-bide egokiak finkatzea eta zuzendaritza eta koordinazio-organo desberdinetarako beharrezko informazioa antolatzea
- Aldizka Eskola Kontseiluari eta Klaustroari urteko planaren programak bete diren adieraztea eta bere burutzapenean egin ahal izan diren aldakuntzen berri ematea
- Eskola Kontseiluari proposamenak jasotzea, beste ikastetxe publikoekin konbenioak ezartzeko, eskolatzea hobetzeko, esperientzia eta baliabideak trukatzeko, eta baita ere ikastetxeak harreman sistematikoak izango dituen erakunde eta organismoekiko koordinazio moduak finkatzeko.

1.4. Zuzendariaz.

9. 1. Zuzendariari dagokio Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak bere 34. atalean egozten dizkion funtzioak.

a) Ikastetxearen Ordezkaritza ofiziala izatea.

b) Ikastetxearen iharduera zuzendu eta koordinatzea; ikas ospakizunetarako eta batzar organoen bileretarako dei egitea eta horien mahai-buru izatea.

c) Gastuak egiteko baimena ematea, ikastetxearen urteko kudeaketa-egitarauarekin bat etorriz, eta ordainketak agintzea.

d) Lan , zerbitzu eta hornikuntza hitzarmenak egitea.

e) Egiatagiriak eta agiri ofizialak ikus-onestea.

f) Arauak, erabakiak, proiektuak eta iharduera-egitarauak eta ikastetxearen iharduerari eragiten dioten erabakiak betearaztea.

g) Zuzendaritza karguen izendapena proposatzea ordezkari organo gorenari.

h) Ikastetxeari atxikitako langile guztien buruzagitza izatea.

i) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko organoek ordezkotzan eman diezaizkieten

gainerako aginpideak; bestelako arauak eta ikastetxearen antolakuntza eta iharduera araudiak eman diezaizkietenak.

2. Zuzendariak, bere funtzioak betez, Eskola Kontseiluak eta Irakasle-Klaustroak hurrenez-hurren beren eskumeneko gaietan hartutako erabakien eta planen arabera jokatu beharko du. Era berean, hezkuntza-komunitatea dinamizatzea dagokio, irakasle bategi batez ere, eta beren ekarpen eta interesak jasotzea eta bideratzea, komunikaziorako eta lankidetzarako bideak bilatuz.

3. Zuzendariari dagozkio ondoko zeregin hauek:

- Zuzendaritza-Taldearekin batera, Ikastetxearen funtzionamendu orokorra eta azaltzen

diren arazoak ezagutu eta jarraitzea, bertan gertatzen denaren azken erantzule gisa.

-
- Zuzendaritza-Talderako, Klaustorako, Eskola Kontseilurako eta Batzorde Iraunkorrerako deialdia egitea, gai-zerrenda moldatzea eta bilkura horietan buru izatea.
 - Zuzendaritza-Taldeak urteko plana betetzeari buruz lantzen duen txostena transmititzea
 - Bere lehendakaritzapeko organoen erabakiak burutzea edo burutaraztea.
 - Ikastetxearen izenean Administrazioarekin, GErekin eta gizarte, gizarte-ongizate, kultur... erakundeekin harremanak edukitzea.
 - Administrazioari, ikastetxea ongi antolatzeko, langilegoari dagokionez dituen beharrak aurkeztea eta Ordezkaritzari beharrezko ordezkapenak eskatzea.
 - Ikuskaritzara irakaslegoaren hutsegiteen hileroko parte igortzea, ezarritako epeen barruan

-
- Gastuak eta ordainketak onikustea.
 - Diziiplina eta elkarbizitza-arazoak konpontzea, Araudi honetan ezarritakoaren arabera,
irakaslegoari eta ikasleei eta beren familiei dagokienez.

4. Bere eginbeharrak betetzeko, Zuzendariak x irakastordu hartu ahal izango ditu.

1.5. Ikasketa-Buruaz, Idazkariak eta Administratzaileak.

10. 1. Ikasketa-Burua da curriculum-proiektua eta irakas-ihardueren programa koordinatu eta gauzatzen direla zaintzeko ardura duen organoa.

2. Ikasketa-Buruari ondoko funtzio hauek dagozkio, ikastetxearen Zuzendaritza-Taldeak onartutako irizpideen arabera:

- a) Irakaskuntzako iharduerak koordinatzea.
- b) Eskolako ordutegiak egitea eta betetzen direla zaintzea.
- c) Irakasle bakoitzari ikastetxeko gela bat edo gehiago izendatzea, Zuzendaritza Taldeak ezarritako adskripzio kriterioen arauetan.

3. Ikasketa-Buruak ondoko zereginak burutuko ditu:

- a) Irakaslegoaren hutsegite eta baxak direla eta gertatzen diren bete gabeko lanpostuak betetzeko ezarri diren mekanismoak abiaraztea.
- b) Diziiplina eta elkarbizitza-arazoetan esku hartzea, araudi honetan ezarritakoaren arabera.
- c) Ebaluazio eta orientabide-prozesuak koordinatzea.

4. Pedagogi esparruaz arduratzen den Zuzendaritza-Taldeko kide gisa, Ikasketa-Buruaren

menpe egongo dira Pedagogi Koordinaziorako Batzordea, Elkarbizitzarako Batzordea, irakas

-taldeak eta hezkuntza-zerbitzuak. Aldizka, eta eskatzen dioten guztietan, organo hauen

ihardunen berri emango dio Zuzendaritza-Taldeari. Irakas-taldeen arduradunengandik eta

koordinatzaileengandik informazioa jasoko du lan-planei, beren burutzapenari eta erabakiei, eta

talde desberdinek egiten duten lanari buruz.

5. Ikastetxearen egoeraren eta talde desberdinek egiten dituzten ziklo desberdinen analisisan

oinarrituta, Ikasketa-Buruak, Zuzendaritza-Taldearen lankidetzaz, Urteko planean sartu

beharreko berariazko berrikuntza edo prestakuntza-proiektuak izango dituzten gaiak proposatuko ditu.

6. Bere funtzioak betetzeko, Ikasketa-Buruak x irakastordu izango ditu.

11. 1. Idazkaria, Ikastetxeko administrazio gestiorako arduratzen den organoa

2. Idazkariak ondoko funtzioak izango ditu:

a) Eskola Kontseiluaren, ikastetxeko zuzendaritza-taldearen eta irakasle -klastroaren bilkuretako gai-zerrendan sartu beharreko gaiak prestatzea, organo horietako buruak ezarritakoaren arabera, eta organo horien bilkuretako akta egitea.

b) Aktak, espedienteak eta ikastetxearen beraren agiriak zaintzea, eta bertako organoen eskueran izatea. Ikastetxeko irakas-baliabideak zaintzea.

c) Zuzendariaren oneritiaz, ikastetxearen egintza, erabaki, hitzarmen, aurrekin, liburu eta agiri guztiak egiaztatzea.

3. Administrazio-esparruaren arduradun gisa, Idazkariaren menpe egongo da administrazio eta zerbitzuetako eta eskola-zerbitzuetako langilegoa.

4. Bere funtzioak betetzeko, Idazkariak x irakastordu izango ditu.

12. Administrazioaileak, organo eskudunen orientabideen eta zuzendaritza-taldearen edo, hala badagokio, batzorde iraunkorraren jarraipideen arabera, eta Zuzendariak gainbegiratuta, ondoko funtzioak beteko ditu:

a) Ikastetxeko kontabilitatea eramatea.

b) Ikastetxearen behar ekonomikoen zerrenda egitea, bere aurrekontu propioan sartu beharreko gastuei dagokienez.

c) Aurrekontua eta beronen likidazio-kontuari dagokion agiria prestatzea, Zuzendaritza-Taldeak edo, hala badagokio, Batzorde Iraunkorrak, ordezkari-organoren gorenak onetsi dezan aurkezteko.

d) Kontratazioak, materiala eskuratzeko proposamenak eta inbertsioak prestatzeko ihardunak

burutzea.

- e) Ikastetxeko zuzkiduren inbentarioa egitea.

- f) Instalazioen mantenimendua gainbegiratzea.
- g) Zuzendaritza-Taldeak edo Zuzendariak eskatu edo bere esku uzten dituenak.

2. PARTAIDETZA ETA LANKIDETZA ORGANOK

13. 1. Umandi Ikastola Publikoak ondoko partaidetza-organoak izango ditu:

a) Gurasoenak:

Gurasoen Batzarra
Batzarreko Mahaia

b) Ikaslegoarenak:

Ikasgelako Batzarra
Ordezkariek Eskola Kontseiluan

2. Lankidetzaren organoak ondokoak dira:

- a) Ikasleen Gurasoen Elkarteak
- b) Erakundeak eta ikastetxearen laguntzaile gisa diharduten elkarteak.

2.1. Gurasoen Batzarra.

14. 1. Batzarkideak dira ikastetxeko ikasle guztien gurasoak. Ikastetxeko beste estamantuen laguntza eta partehartzea onartuko da.

2. Gurasoen Batzarrak Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak bere 38.2 atalean esleitzen dizkion funtzioak dauzka.

a) Ikastetxeko gainerako organoei beren ardurapeko diren gaiei buruz egoki jo dituzan proposamenak egitea, eta irakaskuntza-ihardueren egitaraua, prestakuntza-ihardueren, eskolaz kanpokoaren eta osagarrizkoen egitaraua eta urteko kudeaketa-egitaraua egiteratzeari buruzko balorazioa ematea.

b) Zuzendaritza taldearekin eta irakasle klaustroarekin harremanak izatea, ikastetxearen hezkuntza proiektuaren garapenean lankidetzarik handiena lortzeari begira.

c) Ikastetxeko bizitzan parte hartzeko gurasoen ekimena susupertzea.

d) Batzar organoetan gurasoen ordezkari direnak bileretara deitzea, egindako kudeaketaren berri eman dezaten.

e) Bere iharduera araudiak onartzea.

3. Batzarrak Mahai bat izango du, Eskola Kontseiluko gurasoen ordezkarien artean, hauek hautatutako bi kidek eta ikastetxeko Gurasoen Elkarteko Zuzendaritza-Taldeko bi kidek, Talde honek hautatuak, osatuko dutena. Beren artean bat hautatuko dute Mahaiaren bozeramaile.

Batzarraren Mahaia ikasturtearen lehen hilabetearen osatuko da, denbora luzeena daraman ordezkariaren ekimenez. Batek baino gehiagok denbora bera badaramate, adinez zaharrena den ordezkariak hartuko du ekimena.

4. Batzarra Eskola Kontseiluak zerbait planteatzen dion guztietan bilduko da, bai bere iritzia jakiteko, bai informazio edo proposamenen bat transmiti diezaion edo bai bere kideen %5ak hala eskatzen duenean.

5. Batzarrari, derrigorrez, ondoko hauei buruzko informazioa eman eta kontsultatu beharko zaio:

a) Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektuaren lanketa eta bere aldakuntza.

b) Ikastetxearen Urteko plana.

c) Antolakuntza eta iharduera-araudian betebeharrak eta eskubideak eta elkarbizitzarako eta diziplinarako arauen definizioa.

d) Hizkuntz eredu aldaketetarako eskaera.

e) Ikastetxea eraberritzeko obra garrantzitsuen eskaera.

f) Iharduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko ikasleei eska dakizkiekeen ghienezko zenbatekoen zehaztapena.

6. Batzarrerako deialdia Mahaiko bozeramaileak egingo du, Mahaiak erabakitako data eta gai-zerrendaz. Batzarreko Mahaia Batzarrak erabakitzen dituen proposamenak eta adierazi nahi dituen iritziak Zuzendaritza-Taldera helarazten arduratuko da, eta halaber Batzarrak beharrezkotzat jotzen dituen ekintzak burutzen.

7. Batzarrak aktiboki parte hartuko du Ikastetxeko Eskola Kontseiluko, Mugapeko Lurralde-Kontseiluko eta Udal Kontseiluko gurasoen ordezkarien hautaketan, ondoko funtzioak bere gain hartuz:

a) Mahaiak hautagaien aurkezpenerako saio informatiboetarako deialdia egingo du

b) Sektoreko ordezkarien hautaketa Batzarraren bilkura irekian egingo da, eta honek gutxienez 4 ordutako iraupena izango du goizez eta arratsaldez banatuta, gutxienez Mahaiko bi kide buru izanik.

c) Asanbladako mahaiburuak bozketen emaitzak eta hautatutakoak egiaztatuko ditu.

2.2. Gurasoen Elkarteaz

15. 1. Gurasoen Elkarteak gurasoen borondatezko partaidetza eta lankidetzak organoak dira.

2. Gurasoen Elkarteak indarrean dauden arauen arabera eratzen badira eta badirela Eskola Kontseiluari ofizialki adierazten bazaio soilik onartuko dira.

3. Elkarteek ondoko esparruetan ihardun dezakete:

a) Gurasoen Batzarreko organo exekutiboetan;

b) Eskola Kontseiluak bultzatutako lan batzordeetan.

c) Bere sektoreko kideen eta bere seme-alaben defentsan, baldin eta eskubideak zapaldu edo betebeharrak bertan behera utzi direla ulertzen bada.

d) Urteko planaren programetarako proposamenak aurkeztuz, batez ere iharduera osagarrien eta eskolaz kanpoko programarako.

e) Iharduera osagarrien eta eskolaz kanpoko programaren burutzapenean, eta eskola-ihardueretan, gurasoen eta irakasleen arteko lankidetzan.

f) Gurasoen informazioan eta prestakuntzan.

4. GEk Eskola Kontseiluari burutzen dituen ihardueren berri emango dio aldizka.

5. GEek ikastetxeko lokalak erabiltzeko eskubidea dauka bere iharduerak burutzeko,

baldin eta ez badu eskolako ihardun normalean eragozpenik sortzen. Zuzendaritzak beharrezko

lokalak eskainiko ditu ikastetxeak dituen aukeren baitan, Elkarteak bere beharren berri eman ondoren.

2.3. Ikaslegoaren partaidetzaz.

16. 1. Ikaslegoak zikloko eta ikasgelako iharduerarekin zerikusia duten gaien kudeaketan parte hartuko du, ikasgelako Batzarren bitartez, hau da, tutoretza orduak deituak direnak.

2. Ikasgelako Batzarrak taldeko elkarbizitza, iharduera berezien antolaketa eta ikastaldearen martxa orokorreari dagozkien gaiak eztabaidatu eta horiei buruzko proposamenak egingo ditu.

3. Ikasgelako Batzarra taldearen tutorearen edo lehendakaritzapean egongo da. Halaber, taldeak berak erabakitako prozeduren arabera hautatutako ikasle bat izango da.

4. Ikasgelako Batzarrak beste talde batzuekin guztien interesa duten gaiari buruzko bilera bat egitea eskatu ahal izango du. Kasu hauetan taldearen ordezkari bat edo batzuk izan ahalko dute.

3. PEDAGOGI KOORDINAZIORAKO ORGANOAK

18. Umandi Ikastola Publikoan pedagogi koordinaziorako organo gisa funtzionatuko dute ondoko hauek:

- a) Irakasle-klaustroa
- b) Irakas-taldeak, ziklokoak eta departamentuak
- c) Pedagogi koordinaziorako batzordea

Era berean, hezkuntza-iharduna ahalik eta onena izan dadin, ondokoak egongo dira:

- a) Hezkuntza-zerbitzuak
- b) Eskola-zerbitzuak.

3.1. Irakaslegoa

19. 1. Irakaslegoari dagokio:

- a) Irakas-ihardueren programazioa landu, garatu eta ebaluatzea, Ikastetxearen Curriculum-Proiektuaren arabera.
- b) Ikasleen tutoretza bere gain hartzea, ikasleen ikaskuntza eta aukera akademiko eta profesionalei orientabidea emateko.
- c) Esleituta dauzkan irakas-taldeetan parte hartzea, ekintza koordinatua eta eskola -testuingurura egokitutakoa definitu eta lortzeko.
- d) Ikastetxearen Urteko planean parte hartzea eta bertan sartzen diren berariazko Proiektuetan laguntzea dagokion neurrian, eta baita ikastetxearen eta irakaslegoaren irakas

-ihardunaren ebaluazioan laguntzea ere.

e) Irakaslegoak egokitzat jotzen dituen Prestakuntza ihardueretan aktiboki parte hartzea.

f) Bere esku uzten diren kargu eta funtzioak betetzea.

g) Ikastetxearen antolaketarako eta funtzionamendu egokirako laguntza ematea, Ikasketa

-Buruaren eta antolakuntza eta iharduera-araudian zehazten diren beste arduradunen koordinaziopean.

h) Klaustroaren bilkuretara eta pedagogi koordinaziorako organoetara joatea, eta halaber

taldeko aginte-organoetara, horretarako hautatua izan bada.

i) Izaera orokorraz, Ikastetxeko aginte-organoek ezartzen dituzten arauak betetzea.

j) Eskola Kontseiluari zein Zuzendaritza taldeari proposatzeko ahalmena.

2. Irakasleek, berez irakaskuntzari dagozkion zereginez gain, Araudi honek xedatutakoari

eta urteko planean onartutako urteroko antolaketari jarraiki, ondoko berariazko funtzioen bat

bete ahal izango dute:

a) zuzendaritza-funtzioa;

b) tutoretza-funtzioa;

c) irakas-taldearen ardura;

d) hezkuntza eta eskola-zerbitzuen ardura.

3.2. Tutoretza-funtzioa

20. 1. Ikasleek erreferentzia-talde bat osatuko dute, eta honi tutore bat esleituko zaio.

Zuzendaritza-Taldeak, Irakasle-Klaustroari entzun ondoren, talde bakoitzaren tutorea izendatuko

du. Tutorea berbera izango da zikloan zehar, legeak aurrikusitako kasuetan eta Zuzendaritza

-Taldeak hala erabakitzen duenean ezik.

2. Tutoreari dagozkio Haur eta Lehen Hezkuntzaren ezarpen Aginduaren 16. atalean egozten

zaizkion funtzioak:

-
- a) Ikasleen ikaskuntza orientatzea.
 - b) Gurasoei beren seme-alabek parte hartzen duten ikas-jardueren, hezkuntza prozesuaren eta aurki ditzaketen eragozpenen berri ematea.
 - c) Irakasle taldeak onartutako tutoritza plana garatzea.
 - d) Ikasleei euren taldean eta eskolako bizitzan integratzen laguntzea eta parte hartze jarrerak bultzatzea beraien artean.
-
- e) Ikasleek ikasteko dituzten arazo orokorrenak konpontzen laguntzea eta, ahal den neurrian, aurrea hartzea programazioan dagozkion egokitzapenak eginez halaber, banakako hezkuntza premiei erantzuten laguntzea, eta egokitzat joz gero curriculum egokitzapena egin.
 - f) Programazioaren, irakas jardueraren, curriculum proiektuaren eta ikastetxearen urteko programazioaren arteko koherentzia koordinatzea taldeko gainerako maisu/maistrekin batera.
 - g) Laguntza irakasleekin eta, hala badagokio, aholkurariarekin batera, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen curriculum egokitzapenak eta hezkuntza esku hartzea koordinatzea.
 - i) Ikasleen ebaluazio prozesua koordinatzea eta , gainerako irakasleen txostenak kontutan izanik, ziklo batetik bestera igarotzeko erabakia hartzea.

3. Tutoreari dagozkio ondoko zereginak:

- a) Tutoretza eta orientabide-plana garatzea, taldearekin eta ikasle bakoitzarekin.
- b) Ikasle bakoitzaren jarraiketa egitea, taldean parte hartzen duten irakasleengandik informazioa jasotzea eta ikasle bakoitzaren espediente pertsonala betetzea.

c) Laguntza/Orientabide-Zerbitzuaren aholkularitzaz, behar dituzten ikasleentzat hezkuntza-indargarriak eta curriculum-egokitzapenak ezartzea eta hauek praktikan jartzen ote diren begiratzea.

d) Taldean-gelan periodikoki parte hartzen duten irakasleei deialdia luzatzea taldearekikoearekiko beren iharduna koordinatzeko eta, derrigorrez hiruhileko bakoitzaren

bukaeran, ikasleen ebaluazioari ekiteko eta taldean sortzen diren egoerak aztertzeko.

e) Asistentziarik eta puntualtasunik ezak kontrolatzea eta halaber diziplina-hutsegiteak ere, dagokien oharra guraso edo tutoreei luzatuz.

f) Ikasleei eta hauen familiei, ikasturtearen hasieran, helburu, eskola-programa eta ebaluazio-irizpideen berri ematea; urtean zehar, hezkuntza-prozesuei eta ebaluazioei buruzko informazioa ematea.

g) Ikasleen guraso edo tutoreez arduratzea, Araudi honetan aurrikusten den moduan.

3. Irakas-ihardueren programan, ikasleen guraso edo tutoreekin bilera informatiboak

burutuko dira. Bilera hauek familia gehienek ahal izaten duten orduetan egingo dira, ikasturtearen

hasieran eta berriro urtearen bukaeran.

4. Ordu-tegi bat finkatuko da guraso eta tutoreekin elkarrizketak edukitzeko. Ezarritako ordu-tegian agertzerik ez balute, elkarrizketa bat eskatu ahal izango dute aurretiaz nahikoa denboraz, tutoreak une egoki bat proposatu ahal izan dezan. Tutoreak guraso edo tutoreei deialdia egin ahal izango die ikasle baten eskola-

ihardunaz hitzegiteko, beharrezkoa ikusten duen bakoitzean eta ikasturtean behin behintzat.

5. Tutoreak astean ordubete egongo da taldearekin, tutoretza-plana burutzeko.

3.3. Irakas-taldeak

21. 1. Irakaslegoak lan koordinatua egingo du, eta horretarako irakas-taldeetan antolatuko da. Ikastetxeko irakasle guztiek gutxienez irakas-talde bateko kide izan beharko dute.

2. Urtero, irakas-ihardueren programa lantzerakoan eta onartzerakoan, Ikastetxean

funtzionatuko duten irakas-taldeak, hauen kideak eta funtzionamendu-erregimena (bilerak zenbatero egingo diren, lanerako plana, informazioa eta beste taldeekiko harremanak...) finkatuko dira.

3.4. Ziklo/mailako taldeak

22. 1. Zikloa/kurtsoa eskola-curriculum antolatzen den denborazko unitatea da, eta berezko helburuak, edukinak eta ebaluazio-irizpideak ditu, Ikastetxearen Curriculum-Proiektuaren arabera.

2. Ziklo batean esku hartzen duten irakasle guztiek zikloko taldea osatzen dute. Irakasle batek ziklo desberdinetako taldeetan ematen baditu eskolak, ziklo horietako batera adskribatuko da, eskatzen zaionean beste ziklo bateko taldean parte hartu ahal izango badu ere.

Irakas-zereginen banaketan, lehentasuna emango zaio zikloan ahalik eta irakasle gutxienez esku hartzeari eta irakasle bakoitzak ziklo bakarrean edo segidan dauden zikloetan eskolak emateari.

3. Zikloko taldeak irakaslegoaren oinarritzko koordinazio-modua dira. Taldeek zikloko eskola-ihardueren programazioari eta koordinazioari buruzko erabakiak hartzeko ahalmena dute, Curriculum-Proiektuaren eta Pedagogi Koordinaziorako Batzordearen esparruaren baitan.

4. Zikloko talde baten zereginak ondokoak dira:

a) Ziklo/mailako taldeen egoera akademikoa aztertzea, beren behar orokorrak antzematea eta berauei erantzuna ematea.

b) Ziklo, kurtso eta hau banatzen den aldi bakoitzaren helburuak, edukinak eta ebaluazio-irizpideak finkatzea.

c) Zikloko iharduera orokorrak, ebaluazio-bilkurak eta iharduera osagarrien burutzapena antolatzea.

d) Taldeen tutoretza-ihardunak eta familientzako informazio orokorra prestatu eta koordinatzea.

e) Laguntza-Zerbitzuarekiko harremanak edukitzea.

f) Berrikuntza-Proiektuak edo zikloarekin zerikusia duten antzekoak koordinatzea.

g) Pedagogi Koordinaziorako Batzordearen proposamenak aztertu eta berauei erantzutea; era berean, Batzorde honetara proposamenak igortzea, dagokion organoan azter daitezzen.

5. Zikloko taldeak astean behin bilduko dira, urteroko irakas-ihardueren programan finkatutako lanerako plana burutzeko. Urteko lanerako planean sartzen diren zereginenez gain, zikloko taldeek ondoko zeregin hauek beteko dituzte:

a) Ikasturtearen hasieran, helburuak, programa eta ebaluazio-irizpideak, elkarri informazioa emateko bideak eta ikasleei ikastetxetik kanpo egiteko eman dakizkiekeen lanei buruzko irizpideak zehaztea.

b) Ebaluazioaldi bakoitzean, ikasleen eta taldearen egoera akademikoa aztertzea, beren hezkuntza-beharrak antzematea eta berauei erantzutea.

6. Zikloko talde bakoitzak Koordinatzaile bat izango du; ikasturtearen hasieran kideen artean eta berauek hautatuko dute eta zuzendaritzari honen izendapena proposatuko diote.

7. Zikloko Koordinatzaileari Lehen Hezkuntzako Ezarpen-Aginduaren 17,2 atalean esleitzen zaizkion funtzioak dagozkie; eta gainera:

- Zikloko bilkuren gai-zerrenda prestatzea, ondorioak eta akordioak jasotzea eta betetzen ote diren begiratzea.

- Ikasketa-Buruari irakaslegoaren hutsegiteen eta eskolako elkarbizitzako gorabehera nagusien berri ematea.

- Ukitu diren gaiak eta hartu diren erabakiak jasotzen dituzten bilkuren aktak egitea. Era berean, zikloko taldeak lantzen dituen dokumentuak eta materialak eta zikloan normalean erabiltzen diren baliabide didaktikoak ziklorako jaso eta edukitzea.

8. Zikloko Koordinatzaileek lehentasuna izango dute, Zuzendaritza-Taldearen ondoren, ordu-banaketan beren zereginak egin ahal izateko denbora edukitzeko.

3.5. Departamentu didaktikoak

23. 1. Departamentu didaktikoak irakasleek osatzen dituzten irakas-taldeak dira, arlo edo gai baten curriculuma garatzeko, curriculum-materialak eta ebaluazio-tresnak lantzeko edo guztien interesa duten gaiak ukitzeko, adibidez aniztasunaren trataera, tutoretza, zehar-lerroak...

2. Departamentuek staff izaera dute, eta eztabaida-funtzioak dituzte, ez erabakitzaileak. Beren proposamenak Zuzendaritza-Taldeak, Zikloen arteko Koordinazio Batzordeak edo dagokion zikloko Taldeak berresten dituztenean soilik izango dira lotesleak.

3. Departamentuen funtzioak ondokoak izango dira:

a) Ikastetxearen Curriculum-Proiektuaren garapenerako eta/edo aldakuntzarako proposamenak lantzea.

b) Arlo edo gai baten programazioa garatzea, Curriculum-Proiektuaren arabera, ziklo baterako edo batzuetarako, baliabide didaktikoak eta/edo ebaluazio-tresna egokiak garatzea.

c) Eskola-testuinguruko edo arlo bateko arazo orokorrak direla eta, irakatsi eta ikasteko prozesuan sortzen diren eragozpenak aztertzea, hauek hezkuntza eta prestakuntza-berrikuntzaren bidez gainditu ahal izateko.

4. Irakas-ihardueren programan, Urteko planean sartzen diren Proiektuak burutzeko kurtsoan zehar funtzionatuko duten Departamentuak zehaztuko dira, eta beren lanerako plana finkatuko da.

5. Departamentuetara, burutu beharreko proiektuan esku hartuko duten irakasleak

adskribatuko dira, eta ezin izango dute Departamentu bat baino gehiagotan parte hartu.

Departamentu bakoitzak taldearen koordinazio-funtzioak beteko dituen arduradun bat izango du. Lan zamak hala eskatzen duenean, eta ikastetxeak horretarako gaitasunik baduenean,

irakastorduetatik ordu batzuk kenduko zaizkio.

6. Irakas-ihardueren urteko programan sartzen diren proiektuak lantzen dituzten departamentuak aldioro bilduko dira, irakaslegoaren lanorduetan, beren lanerako plana burutzeko. Irakasgaiei dagozkien departamentu guztiak ikasturtearen hasieran bilduko dira...

Pedagogi Koordinaziorako Batzordea.

24. 1. Zikloetako Koordinazio Batzordea irakas-talde desberdinen koordinazio-organoa da.

2. Zikloetako Koordinazio Batzordearen burua Ikasketa-Burua izango da eta irakas-taldeen eta hezkuntza-zerbitzuen arduradunek osatuko dute. Batzordeak beste kide bat eduki dezake, burutu beharreko zereginen arabera.

3. Batzorde honek ondoko funtzioak izango ditu:

a) Ikastetxearen Curriculum-Proiektuaren eta irakas-ihardueren Programaren lanketa, martxan jartzea eta ebaluazioa koordinatzea, Klaustroaren proposamenaren arabera, Klaustroari aurkeztuko baitizkio ones ditzan.

b) Zikloen eta arloen irizpide amankomunak finkatzea eta ziklo desberdinei dagozkien iharduerak koordinatzea.

c) Prestakuntza-Ihardueren eta Iharduera Osagarrien eta Eskolaz Kanpoko Programaren lantzeko ardura duen Batzordeari irakaslegoak gai hauei buruz dituen proposamenak aurkeztea.

d) Aginte-organismoek egozten dizkietenak.

4. Pedagogi Koordinaziorako Batzordearen erabakiak operatiboak izan beharko dute Ikastetxeko aginte-organismoek hartutako erabakiak praktikan jartzeko. Egokitzat jotzen dutenean, aipatu organoei eztabaidatzeko eta erabakitzekeo proposamenak igorri ahal izango dizkiete.

5. Pedagogi Koordinaziorako Batzordea hilean behin bilduko da, eta Ikasketa-Buruak horretarako deialdia egin edo kideen herenak eskatzen duen guztietan.

3.7. Hezkuntza-zerbitzuak.

25. 1. Hezkuntza-zerbitzuek irakaslegoari laguntza emateko funtzioa dute, honek bere betebeharrak ahalik eta hobekien egin ditzan.

2. Ondoko hezkuntza-zerbitzuak izango dira:

a) Laguntza-Zerbitzua

b) Baliabide Didaktikoen Zerbitzua.

c) Iharduera osagarri eta eskolaz kanpoko zerbitzua.

3. Zerbitzu bakoitzeko burua Zuzendaritza-Taldeak izendatutako Arduradun bat izango da.

4. Zerbitzu guztiek ikastetxeko klaustroaren arabera jokatuko dute, Ikasketa-Buruaren zuzendaritzapean, eta honek aldizka informazioa jaso ondoren, dagokionari bere lanaren berri emango die.

26.1. Laguntza-Zerbitzua arduraduna izango den Kotsultariak, hezkuntza-premia berezietarako laguntzako irakasleek eta zikloek izendatutako tutoreek osatuko dute.

2. Laguntza-Zerbitzuak ondoko funtzioak beteko ditu:

a) Tutoretza-plana lantzea, Klaustroaren onespenerako eta zikloko Taldeei gauzatzeko aurkeztuko dena.

b) Ikaslegoaren beharrak eta eskakizunak aztertzea eta urteroko Planerako eta tutoreentzako proposamenak lantzea.

c) Ikastetxeko egoera desberdinetan erabil daitezkeen hezkuntza-indargarriko eta curriculum-egokitzapeneko neurriak aztertzea eta horiei buruz proposamenak egitea.

3. Laguntza-Zerbitzua beharrezkoa ikusten duenean bilduko da.

Laguntza-Zerbitzuak aniztasunaren eta hezkuntza-premia berezien antolaketa koordinatuko du. Halaber, gai hauei buruzko berariazko proiektuak, curriculum egokitzapen esanguratsuak edo aparteko baliabideak dituztenak egiteko eskaerak P.A.T.-era igorriko direlarik.

27. 1. Kotsultariak ondoko funtzioak beteko ditu:

a) Tutoreei tutoretza-funtzioa burutzeko aholkularitza eta laguntza ematea.

b) Tutorearekin eskola-arazoak edo hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen egoera

aztertzea, eta kasu bakoitzean egokitzat jotzen diren ihardunak erabakitzea, hezkuntza

-indargarriazkoak nahiz curriculum-egokitzapen indibidualduzkoak.

c) Tutoreari eta irakasleei, orokorrean, eskola-testuinguru jakin batean irakaskuntza

hobetzeko komeni diren berrikuntza-prozesuei buruz aholku ematea.

d) Aniztasunari eta hezkuntza-premia bereziei arreta eskaintzeko proiektuak koordinatzea.

e) Ihardun espezializatua behar duten ikasleekin zuzenean lan egitea, bai ikasgelan

irakaslearekin eta bai ikasgelatik kanpo.

2. Kotsultariaren lanorduak ikasturtearen hasieran banatuko da, klaustroaren eta Ikastolako beharren araueran ondoko irizpideen arabera banatuko dira:

28. Baliabide Didaktikoen Zerbitzua ikastetxeko baliabide didaktikoak antolatu, zaindu eta

koordinatzeaz arduratuko da, lokalak eta ekipamenduak barne, batez ere liburutegia, laborategiak, ikus-entzuteko bitartekoak eta informatikoak, tailerrak, gimnasi-gela, ekitaldi

-aretoa... Arduradun bat izango du, klaustroak izendatua, instalazio didaktikoekin zuzen-zuzenean lan egiten duen irakaslegoaren laguntza izango duena. Zerbitzu honetako

arduraduna Batzorde Ekonomikoaren partaide izango da.

29. Iharduera Osagarrien eta Eskolaz Kanpokoan Zerbitzua honelako iharduerak sustatu, antolatu

eta bultzatzeaz arduratuko da. Programa honen lehen zirriborro bat lantzeaz arduratuko da, arloko

departamentuek, zikloko taldeek eta Guraso Elkarteek aurkeztutako proposamenak kontuan

hartuta. Zerbitzuak arduradun bat izango du, eta honekin iharduera bakoitza burutzeko zeregina

duen taldeek lankidetzan ihardungo dute.

3.8. Eskola-zerbitzuak

31. 1. Ikastetxeak ondoko eskola-zerbitzuak izango ditu:

- a) Eskolako jangela
- b) Ikasleentzako laguntza-zerbitzua
- c) Segurtasun eta Higiene Batzordea
- d) Eskola-garraioa.

2. Zerbitzu hauetako bakoitzaren buru irakasle bat izango da Eskola Kontseiluak izendatuta. Gainera, borondatez adskribatzen diren gurasoen laguntza izango dute.

3. Jangelako arduraduna beronen martxa onaz arduratuko da.

4. Ikasleentzako laguntza eta informazio-zerbitzuaren arduradunak ikaslegoari eta bere familiei beka, laguntza, etab.i buruzko informazioa eta aholkularitza helaraziko die. Era berean, ikaslegoarentzat interesgarriak izan daitezkeen kultur eta kirol ihardueren berri izango du.

5. Segurtasun eta Higiene Batzordea irakasleek osatuko du, eskolako medikuarekin batera irakaslegoaren eta ikaslegoaren osasun-arazoez arduratuko dena, kutsatzeko arriskua duten gaisotasunen prebentzioan arreta berezia jarritz. Halaber, ikasturte hasieran iharduera plangintza bat eratu eta eguneratuko dute.

6. Eskola-Garraio Zerbitzua garraioaren eta ikasleen antolaketaz eta zaintzaz arduratuko da, ibilbidean zehar.

II. IKASTETXE BATEKO KUDEAKETA-TRESNAK

32. Ikastetxearen kudeaketan erabiliko diren tresnak ondokoak izango dira:

a) Hezkuntza-antolaketarako eta koordinaziorako tresnak:

- * Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektua
- * Curriculum-Proiektua
- * Antolakuntza eta Iharduera-Araudia
- * Kudeaketa-Proiektua
- * Urteko plana
- * Urteko Memoria

b) Irakas-ihardunerako tresnak:

- * programazio didaktikoak
- * curriculum-egokitzapenak

c) Dokumentazio akademikoa:

- * ebaluazioan
- * curriculum-egokitzapenetan

d) Kudeaketa ekonomikorako tresnak.

2.1. ANTOLAKETA ETA KOORDINAZIO AKADEMIKORAKO TRESNAK:

Epe ertainerako proiektuak

33. 1. Hezkuntza-Proiektua bakarria izango da Ikastetxe guztirako, nahiz eta bertan etapa bat baino gehiago irakatsi. Berau lantzea eta onestea OOGari dagokio.

2. Curriculum-Proiektuek ikastetxean irakasten den etapa bakoitzaren berri emango dute, beraien artean beharrezko koherentzia izango badute ere. Proiektu horiek lantzea eta onestea Irakasle-Klaustroari dagokio. Pedagogi Koordinaziorako Batzordeak Curriculum-Proiektuaren lanketa koordinatuko du.

3. Kudeaketa-Proiektua Batzorde Iraunkorrak landuko du eta OOGak onetsiko du.

4. Proiektu desberdinen aldakuntzak proiektu horiek landu eta onestea dagokion organo berberak landu eta onetsiko ditu.

5. Lanketa-prozesuek organo arduradunean ordezkariak duten kideen ahalik eta partaidetzarik handiena ziurtatu behar dute.

6. ICPren eta AIAREN aldakuntzak urteko planean planteatu beharko dira eta, aldi egoki batez praktikan jarri ondoren positiboki ebaluatu direnean, organo eskudunak onetsiko ditu, dagokien dokumentuan sartzeko.

7. Proiektu hauek Hezkuntzako Lurralde-Ordezkaritzara igorriko dira, indarrean dagoen legeriarekin bat datorren egiazta dezan.

8. Umandi Ikastolak eskola-komunitateak Proiektu hauek ezagutu ahal izateko mekanismoak finkatuko ditu. Eskola-komunitateko edozein kidek beren kopia bat eskatu ahal izango du.

9. Pedagogi Koordinaziorako Batzordea ihardun didaktikoak ikastetxearen proiektuekiko koherentziarik baduen begiratuko du eta ICP aldatzeko iradokizunak aztertuko ditu, Irakasle-Klaustroari proposamen egokiak egiteko.

Urteko Plana

34. 1. Urteko Plana osatzen dutenak ondokoak dira:

- a) Irakas-ihardueren programa.
- b) Prestakuntza-ihardueren, iharduera osagarrien eta eskolaz kanpoko ihardueren programa.
- c) Urteko kudeaketa-programa.

2. Irakas-ihardueren programa lantzea Irakasle-Klaustroari dagokio eta beste bi programak lantzea Batzorde Iraunkorrari, eta dagozkien esparruetan Batzorde Ekonomikoa, Iharduera Osagarrien Zerbitzua eta GE izango dituzte.

3. Eskola Kontseiluari dagokio Urteko Plana onestea. Irakas-ihardueren programa Klaustroak onetsiko du. Eskola Kontseiluak aipatu programak Umandi Ikastolaren Hezkuntza-Proiektuarekiko duen koherentziari begiratuko dio.

4. Programa desberdinen lanketa-prozesua ikasturtearen azken hiruhilekoan hasiko da eta urriaren 31 baino lehen bukatuko da. Jarraitu beharreko urratsak ondokoak dira:

a) Egoeraren ebaluazioan eta organo eta talde desberdinen proposamenetan oinarrituz, programa bakoitzaren ardura duen organoak eskola-ikasturtean planteatzen diren helburuak eta iharduerak zehaztuko ditu.

b) Zuzendaritza-Taldeak talde eta batzorde interesaturi proiektu desberdinak zehazteko eta garatzeko eskatuko die.

c) Zuzendaritza-Taldeak prozesu hau koordinatuko du eta urteko plangintzari hoherentzia ematen saiatuko da.

d) Programak landu ondoren, Zuzendaritza-Taldeak Plana Eskola Kontseiluari aurkeztuko dio, onespena eman diezaion.

35. 1. Irakas-ihardueren programak ondokoak jasotzen ditu:

a) antolaketari buruzko urteko erabakiak, antolakuntza eta iharduera-araudian xedatutakoaren arabera;

b) Ikastetxearen Curriculum-Proiektuan sartzen diren aldakuntzak;

c) Curriculum-Proiektuaren garapenerako berariazko proiektuak;

d) ikastetxearen ebaluazioa egiteko irizpideak eta modua.

2. Hezkuntza Sailak edo beste edozein Erakundek egin ditzakeen deialdietara ikastetxeak aurkezten dituen berrikuntza, prestakuntza, etab. i dagozkion proiektuak Urteko Planean sartuko dira.

3. Hiruhilero, Pedagogi Koordinaziorako Batzordeak irakas-ihardueren programa betetzen ote den ebaluatuko du, inplikaturako talde eta pertsonekin. Zuzendariak OOGari ebaluazio honen alderdirik garrantzitsuenen berri emango dio. Ikasturte bukaeran, klaustroak txosten bat landuko du programaren eta honen burutzapenari eta irakaskuntza-esparruan ikastetxeak duen funtzionamendu orokorrari buruz balorapena emanaz.

36. 1. Prestakuntza-ihardueren, iharduera osagarrien eta eskolaz kanpoko ihardueren programak ondoko alderdiak zehaztuko ditu:

a) Ikastetxearen prestakuntza-plana eta eskola-garaian irakaslegoak prestakuntza-ihardueretan parte hartzeko irizpideak.

b) Iharduera osagarriak, hau da, kurtso, ziklo edo etapa bateko ikasle guztiek burutu beharreko aparteko iharduerak, normalean eskolatik kanpo, Curriculum-Proiektuaren garapen gisa.

c) Eskolaz kanpoko iharduerak, hau da, ikasle guztiei irakastorduetatik kanpo borondatez parte hartzeko eskaintzen zaizkienak.

2. Umandi Ikastolako prestakuntza-planean, irakasle guztientzat edo irakasle talde batentzat, irakas-ihardunean somatu diren beharrei erantzuteko, ikastetxean izango diren prestakuntza-iharduerak agertuko dira, antolaketari eta ordutegiari dagozkien aldakuntzak espreski adieraziz. Era berean, Umandi Ikastolako kideek parte hartuko duten urteko planeko

eta zonako prestakuntza-planeko iharduerak sartuko dira.

Eskolako ordutegian prestakuntza-ihardueretan parte hartzeko lehentasuna duten irizpideak ondokoak izango dira:

- Umandi Ikastolak duen interesa, bere Curriculum-Proiektuaren arabera;
- Ikastetxearen eta ikasgela jakin baten ihardun normalean eragin negatiborik ez izatea.

3. Iharduera osagarrien eta eskolaz kanpoko programetan, iharduera, beronen arduraduna, programak norentzat diren, helburuak eta ihardueraren programazioa, tokia, unea eta kostua azalduko dira, finantzaketa-iturria adieraziz.

4. Hiruhilero, batzorde iraunkorrak/Eskola Kontseiluak programa honen garapenaren jarraiketa egingo du, eta honen berri Eskola Kontseiluari emango dio. Ikasturtearen bukaeran, guztizko ebaluazioa egingo du eta bere emaitzak eta proposamenak Eskola Kontseiluari igorriko dizkio, eztabaidatu eta urteko memorian sar ditzan.

37. 1. Urteko kudeaketa-programak ondoko alderdiok barne hartuko ditu:

a) Programa definitzen duten irizpideak eta lehentasunak.

- b) Dirusarreraren eta gastuen aurrekontua.
- c) Inbentarioaren aldakuntzak.

2. Zuzendaritza-Taldearen zuzendaritzapean eta Zuzendariaren ardurapean, Administratzaileak urteko kudeaketa-programa kudeatuko du. Hiruhilero, Eskola Kontseiluari programa zenbateraino betetzen den jakinaraziko dio eta egindako gastuen justifikazioa aurkeztuko dio, aurrez Batzorde Ekonomikoak ikus-onetsita.

3. Aurrekontua aldatzea beharrezkoa denean, beronetan aurrikusitako mugak gainditu gabe, Batzorde Ekonomikoa bilduko da, ontzat emateko. Aldakuntza hauen berri Eskola Kontseiluari emango zaio.

4. Ikasturtea bukatzean Administratzaileak, Batzorde Ekonomikoak ontzat emanik, Batzorde Iraunkorrari azken likidazioa aurkeztuko dio. Batzorde berberak programaren gauzatzearen ebaluazio orokorra egingo du eta Eskola Kontseiluari bere ondorioak eta proposamenak aurkeztuko dizkio.

Urteko Memoria

38. 1. Urteko Memoriak, gutxienez, ondoko gaiak jasoko ditu:

- a) Ikasturtean zehar izan diren eskolako bizitzako gertaera garrantzitsuenak.
- b) Ikaslegoaren emaitza akademikoen balorazioa.
- c) Ikastetxearen funtzionamenduaren analisia eta hobetzeko proposamenak.
- d) Irakas-ihardueren programaren ebaluazioa. Ikastetxearen Curriculum-Proiektuan sartu beharreko ondorioak eta hezkuntza-hobekuntzarako proposamenak.
- e) Prestakuntza-ihardueren, iharduera osagarrien eta eskolaz kanpoko programaren ebaluazioa.
- f) Gastuen analisia.

2. Batzorde iraunkorrak/zuzendaritza taldeak, Eskola Kontseiluaren ordezkari den batzorde batekin batera, urteko memoriaren zirriborroa landuko du klaustroak

eta batzordeek, bakoitza dagokion eskumen-esparruan, egindako txostenetan oinarrituz. Ordezkaritza-organo gorenak aztertu eta, egoki bada, onetsi egingo du.

3. Partaidetza eta lankidetzaren organoek, Memoria hori lantzeko beren balorazioak edo landutako proposamenak aldatzeko iradokizunak helarazi ahal izango dituzte.

2.2. IRAKAS-IHARDUNERAKO TRESNAK

Programazio didaktikoak.

39. 1. Irakasle bakoitzak ikasleekin egingo dituen eskola-ihardueren programazioa zehazteko autonomia eta ardura dauka, Ikastetxearen Curriculum-Proiektuan erabakitako esparruan. Autonomia hau errespetatuz, komenigarria da programazio desberdinak koordinatzea, bai zikloa/maila eta bai arloa kontuan hartuz.

2. Ziklo/Departamentuetako Taldeek, Ikastetxearen Curriculum-Proiektuan hartutako akordioetan oinarrituz, programazioak burutzeko irizpideak eta programazio horiek edukiko duten formatoa zehaztuko dituzte.

3. Urteko programazio orokor bat eta epe laburrerako programazioak landuko dira, dagokion ziklo/departamentuko taldeak zehaztuko dituen.

Programazioek ikastaldea hartuko dute kontuan eta ikasle bakoitzaren nahiz taldearen ezaugarrietara egokituko dira.

4.- Landutakoan, programazioak ziklo/Departamentuko Taldearen, Zuzendaritza-Taldearen eta Irakasle-Klaustroaren esku egongo dira, egokitzat jotzen dituzten aldakuntza-iradokizunak egin ahal izango dituztenak baldin eta Ikastetxearen Curriculum-Proiektuarekiko koherentziarik ez dutela ikusten badute. Eskola-Kontseiluak Hezkuntza-Proiektuarekiko duten koherentzia egiaztatzeko aztertu ahal izango ditu.

5. Tutorea curriculum-egokitzapen indibidualen arduraduna da, eta kontsultariaren eta ikastetxeko laguntzako irakasleen lagguntza dauka. Esanguratsuak badira edo aparteko baliabiderik behar badute, zuzendaritzak PATera igorriko ditu, Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzak onetsi ditzan izapide egokiak egiteko.

Irakas-ihardunaren jarraiketa eta koordinazioa

40. Ziklo/maila/departamentuetako taldeek programazio didaktikoen gauzatzearen jarraiketa egingo dute eta irakas-ihardunaren koordinazio-bidea izango dute. Horretarako, zikloko Koordinatzaileak/Departamentuko Arduradunak ondoko hauek agertzen diren dokumentuak jasoko ditu:

- Taldearen irizpide orokorrak
- Kide bakoitzaren urteko programazioak
- Akordioen eta konpromisuen aktak
- Lanerako planean, programazioen praktika ezagutu eta baloratzeko erabat garrantzitsutzat jo diren datuak
- taldeak landu eta proposatutako curriculum-materialak
- ikasleentzat nahiz irakasleentzat taldean zehaztu diren frogak, inkestak...

3. DOKUMENTAZIO AKADEMIKOA

41. 1. Ikasle bakoitzak oinarrizko eta derrigorrezko dokumentuak artxibatuko direla bermatuko duen espediente pertsonala edukiko du. Aipatu espedienteak ondoko dokumentuak izango dira:

- Ikaslearen Fitxa Pertsonala
- Ikaslearen espediente akademikoa
- Eskolaketa-Laburpenak
- Ebaluazio Indibidualduari buruzko Txostenak
- Ebaluazioaren Azken Txostena
- Curriculum-Egokitzapenak, baldin eta baleude.

2. Ikaslearen espediente pertsonala eta bertan jaso beharreko dokumentazioa betetzea ikaslearen tutoreari dagokio.

3. Ikasle bakoitzak Eskolaketa-Liburu bat izango du, ikastetxean gordeko dena bertan dagoen bitartean. Etapa bukatzean ikasleari emango zaio.

4. Dokumentu hauek gordetzea eta artxibatzea ikastetxeko Idazkariari dagokio. Jasotako informazioa pertsonen intimitaterako eskubideak babesten du eta beraz, ezin izango dira berez hezkuntzazkoak ez diren helburuetarako erabili.

5. Tutoreak, ikaslearen espediente pertsonalaz gain eta tutoreak berak bakarrik erabiltzeko, irakasle desberdinek edo ikasleak berak edo honen familiak emandako informazioetatik jasotako beste datu batzuk erregistratuko ditu, asistentzia-hutsegiteak eta beste hutsegite batzuk barne. Datu guzti hauekin taldeko ikasle bakoitzaren jarraiketa egingo du.

6. Ziklo / kurtso bakoitzan bukatzean, ebaluazioaren emaitzak dagozkien tutoreak/pertsonal administratiboak beteko dituen aktetan jarriko dira.

7. Ikasle bat etapa bukatu gabe beste ikastetxe batera aldatzen denean, ikastetxe berriko Idazkariak jatorrizko ikastetxeari Eskolaketa-Liburua eta Ebaluazio Indibidualduaren Txostena eskatuko dizkio.

2.4. EKONOMI KUDEAKETARAKO TRESNAK

42. 1. Ekonomi kudeaketarako, ondoko tresnak erabiliko dira:

- ikastetxeko baliabideen inbentarioa
- dirusarreraren eta gastuen urteko aurrekontua
- kontabilitate-liburuak
- egindako gastuen egiaztagiriak
- aurrekontuaren balantzea eta likidazioa

2. Ikastetxeen ekonomi kudeaketak, ondoren, izaera ekonomiko-finantzarioa duen kontuhartzailtza-kontrola izango du.

3. Zuzendariak Administrazioaren aurrean ikastetxearen ekonomi kudeaketaren berri emango du.

Aurrekontu-ekitaldia bukatu ondoren eta, Hezkuntza-Administrazioak eskatuta, zuzendariak sinatutako ziurtagiriaren bidez, bukatu berria den ekitaldiari dagokion ekonomi kudeaketa justifikatuko du ikastetxeak, likidazio-kontu batean ikastetxeko aurrekontuan agertzen diren baliabideak zertarako erabili diren adieraziz.

4. Gastu bakoitzean egiaztagiri xehekatuak ikastetxean geratuko dira, dagozkien kontuhartzaitza-kontroleko organoen eskueran eta, hala badagokio, Kontu Publikoetarako Euskal Auzitegiaren eskueran, dagozkien egiaztapenak egin ahal izan ditzaten.

III. ESKOLA-IHARDUERAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ARAUAK

Irakaslegoari dagozkion arauak

43. 1. Maisu-maistrak ikastetxean 30 ordu egongo dira astean. Irakas-zereginetarako dedikazioa ikasturte bakoitzean finkatuko da, dagoen langilegoaren arabera eta onetsitako programen arabera.

Ikastetxeko edo barruti/udalerriko taldeko organoak, bilkuretara bertaratzea ikastetxearen edo irakaslegoaren ordezkari gisa, 3. parrafoan aipatzen den irakas-ihardunik gabeko denboratik deskontatu ahal izango da, ahal den guztietan.

2. Irakas-ihardunik gabeko aldi amankomunak ondoko zereginak burutzeko erabiliko dira nagusiki:

- klaustroaren bilkurak
- irakas-taldeen koordinazioa
- elkarrizketak gurasoekin
- informazio eta/edo prestakuntza-ekintzak.

3. Irakas-ihardunik gabeko aldi indibidualak ondoko zereginak burutzeko erabiliko dira nagusiki:

- irakaskuntzaz gain, bere karguari edo funtzioari dagozkionak
- beste irakasleren bat falta denean ordezkapenak egitea, baldin eta ez baldin badira egun osokoak.
- lan taldeei irakas-ihardueren programan aurrikusitako laguntza ematea
- irakas-iharduerarekin zerikusia duten lan pertsonalak egitea.

44. 1. Irakasle guztiek erregelamenduaren arabera esleitzen zaizkien irakas-zereginak beren gain hartuko dituzte eta funtzio bat (tutoretza, zuzendaritza eta kudeaketa, partaidetza edo ordezkaritza, koordinazioa eta zerbitzuak) beteko dute, Araudi honetan ezarritako organoen eta funtzioen arabera.

Zuzendariak, irizpide pedagogikoak eta klaustroaren iritzia kontuan hartuz, zuzendaritza-taldeak, irakas-talde/departamentuetako taldeak eta, hala badagokio, interesatuak esandakoa entzun ondoren, zereginen esleipena eta zalantzazko arazoak konpondu ahal izango ditu.

Irakaslegoaren ordutegia irakas-ihardueren programan sartuko da eta irakasle-taldeak onetsiko du. Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikora igorriko da, honek ikus-onetsi dezan. Aipatu ordutegia jendaurrean erakutsiko da, eta hezkuntza-komunitateko edozein kidek eskuratu ahal izango du. Ordutegiaren kopia bat Eskola Kontseiluari emango zaio.

2. Zuzendaritza-taldeak eta/edo klaustroak proposatuta, kargu desberdinak, hau da, zuzendaritza, kudeaketa, koordinazio eta ordezkari-taldek beteko dituzten pertsonak izendatuko dira, Araudi honetan finkatutako ordu-murrizketekin edo urteko planean zehazten direnekin batera.

Irakaslegoaren eta ikaslegoaren guztizko irakastordua kontuan hartuta, eta geratzen den denboraren arabera, Pedagogi Koordinaziorako Batzordeak, irakas-taldeetako arduradunei entzun ondoren, proposamen bat egingo du zereginen esleipen-irizpideei dagokienez. Proposamen honetan, arlo edo irakasgai jakin batzuen banaketari, hezkuntza-indargarriari eta irakas-ihardueren programatik eta prestakuntza-planetik sortutako beharrei, etab.ei dagokienez, lehenespen batzuk finkatuko ditu, zeregin bakoitza egingo duen pertsona (edo irakas-taldea) eta horretarako izango duen denbora adieraziz.

3. Proposamen honetan oinarrituz, ikasketa-buruak tutoretzak eta gainontzeko irakas-zereginak esleituko ditu.

4. Tutoretzak eta irakas-zereginak esleitzean, ikasketa-buruak ondoko irizpideak hartuko ditu kontuan:

a) Haur eta Lehen Hezkuntzan:

- talde bakoitzak tutore bat izango du, talde horretan eskolak emango dituen;

- tutorea berbera izango da zikloan zehar;

- Haur eta Lehen Hezkuntzan, tutoretzak lanpostu horietarako adskribatu edo izendatu direnen artean esleituko dira;

- espezialistek beren espezialitateari dagozkion irakas-zereginak beren gain hartuko dituzte, tutoreak berak hartzen ez dituen guztietan; bere gain har lezakeen irakastorduen kopurua berez bete beharreko lanorduak gainditzen dituenean, zuzendaritza-taldeak espezialista bakoitzak zuzenean bete beharreko lehenespenak ezarriko ditu.

Ahal den guztietan, zikloko taldeak osatzen saiatuko da, eta horretarako espezialistek beren iharduerak ziklo bakarrean konzentratuko dituzte. Talde bakoitza zikloan ematen den irakaskuntza guztiaz arduratuko da.

b) OHOk Goi Zikloan, maisu bakoitzari adskribatuta dagoen arloa esleitu zaito; era berean, espezialistarik ez dauzkaten arloak esleitu zaitzkie bere gaitasuna kontuan hartuta.

Taldeen tutoretzak, talde bakoitzean eskolak ematen dituzten irakasleen artean banatuko dira, Umandi Ikastolan dauden arauen araueran.

45. IKASLEGOARI DAGOKION ARAUAK

1. 25 eskola-ordu izango dira astero.

Urteko planean onartutako prestakuntza-planak irakasle guztientzat edo ziklo oso bateko irakasleentzat ikastetxean burutu beharreko prestakuntza-ihardueraren bat aurrikusten duenean, arratsalde bat erabil daiteke iharduera hori burutzeko, beti ere ikastetxeko Eskola Kontseiluak horretarako baimena emanaz gero. Eskola

Kontseiluak zehaztuko ditu ikasleen ordutegiak izango dituen aldaketak, irakastordu gutxiago ez izateko edo ezarritako gutxienekoak betetzeko eta goizetik lau ordu baino gehiago eta arratsaldetik hiru baino gehiago ez izateko.

2. Curriculum-Proiektuan ziklo bakoitzean arlo bakoitzari dagokion ordurikopurua banatzeko irizpideak finkatuko dira, ezarritako derrigorrezko gutxienekoak errespetatuz. Ikasturtero, irakas-ihardueren programan, ziklo bakoitzean eta ziklo bakoitzeko kurtso bakoitzean guztira izango diren orduak finkatuko dira. Banaketa hori orientabide gisakoa besterik ez da, komenigarria baita iharduera berean arlo desberdinetako edukinak lantzea.

3. Zikloko talde bakoitzak erabakiko du ikasleekin burutu beharreko ihardueren ordu-banaketa. Tutore bakoitzak proposamena onartu eta jarraitzen saiatu beharko du. Ordutegi-eredua zehazterakoan, taldeak gutxieneko orduak eta curriculum-proiektuan hezkuntza-prozesuen gainean lortutako akordioak izango ditu kontuan.

4. Taldean irakasle batek baino gehiagok esku hartzen duenean, onako irizpideoi jarraiki banatuko dira berariazko arloak:

a) Hizkuntzen ikaskuntzari dagozkion arloek 4 edo 5 saio hartuko dituzte astean.

b) Saio luzeagoak behar dituzten iharduerak denbora-epe luzeagoa har dezakete, maiztasuna murriztu arren.

46. 1. Ikasle guztiek turorearen erantzukizunpean dagoen erreferentzi talde bat izango dute. Talde bakoitzak ikasgela bat izango du eta bertan burutuko ditu iharduera gehienak. Erreferentzi ikasgela izango da hori.

Maila bereko ikasle-kopurua gutxieneko kopurua baino txikiagoa bada, ahal izanez gero, zikloko taldeak eratuko dira. Zuzendaritza-taldeak egoera hori kontuan hartu eta lehentasuna emango die talde horiei mailakako iharduerak burutzeko orduan, horretarako baliabideak egonez gero behinik behin.

2. Maila bereko ikasleen ohizko taldeak honako irizpideoi jarraiki eratuko dira:

a) Ohizko banaketa desberdina izango da hizkuntz eredu bakoitzean; eredu bakoitzean talde guztiek antzeko ikasle-kopurua izango dute, ikasleren baten baldintzek edo eta premiek talde txikiagoak egitea eskatzen dutenean izan ezik.

b) Ikasle-kopuruak Ikastolako arauen arauetan eratuko dira.

3. Maila/ziklo bereko ikasleak erreferentzi taldeez besteko multzoetan bana daitezke, hots, kide-kopuru txiagoko talde gehiagotan bana daitezke une jakinetan zenbait iharduera burutzeko. Irakas-ihardueren urteko programan talde horiek eratzeko irizpideak, zein taldetan eta zer iharduera burutzeko erabiliko diren zehaztuko da.

Egoitza eta ekipamenduen erabilerari buruzko arauak

47. 1. Ikastetxeko egoitzak eta ekipamenduak irakas-iharduerak burutzeko erabiliko dira.

2. Talde bakoitzari ikasgela bat esleituko zaio ohizko eskola-iharduerak burutzeko; dena den, iharduera jakin batzuk gela espezializatuetan burutu beharko dituzte ikasleek.

3. Baliabide didaktikoak dagokien lekuetan egongo dira.

4. Ikastetxeko ikasleen gurasoen elkarteak, ohizko zereginak egiteko edo bertako partaideei nahiz ikasleei zuzendatuko iharduerak burutzeko lokalen bat behar izanez gero, zuzendaritzari adieraziko dio. Zuzendaritzak eskariei erantzuna emango die, beti ere eskola-ihardunaren bilakaera normalari eragiten ez badiote.

48. 1. Ikastetxeko egoitzak, publikoa baita ikastetxea, gizarte-komunitatearen mesederako eta, batik bat, haur eta gazteen onerako diren kultur, gizarte edo kirol iharduerak burutzeko erabil daitezke. Hala ere, egoitza horiek ezin dira erabili ikastetxeak edo eta bertako elkarteek antolatutako iharduerak oztopatzen dituzten ekintzak burutzeko. Eskola Kontseiluak zehaztuko du ikastetxeko lokalak erabiltzeko dauden lehentasunak eta irizpide orokorrak, alabaina, beti ere kontuan izango du euskal eskola publikoaren berezko aniztasuna.

2. Ikastetxeko egoitzaren bat erabili nahi duten erakunde, legezko elkarte edo eta norbanakoek ikastetxeko zuzendariari aurkeztu behar diote eskabidea. Eskabide horretan burutu nahi duten iharduera, unea, iraupena eta zenbat lokal behar dituzten adierazi beharko dute. Era berean, burutuko diren ihardueren eta gerta daitezkeen kalteen erantzukizuna hartuko dute beren gain.

3. Ikastetxeko zuzendaritzak, indarrean dagoen arautegiaren arabera eta Eskola Kontseiluaren irizpideei jarraiki, ikastetxeko egoitzak erabiltzeko oniritzia emango du. Era berean, garbiketa, jagoletza eta abarrerako tasak ezar ditzake eta gerta daitezkeen kalteak konpontzeko deposito bat eska dezake; alabaina, sortutako gastuak ordaindu ondoren, likidatu eta itzuli egin beharko du deposito hori.

Ebaluazio eta promozioari buruzko arauak

49. 1. Ikasturtea hiru alditan banatuko da. Irakasle bakoitzak programazio orokor bat eta aldi bakoitzerako beste bat egingo ditu, kontuan hartuko dituelarik gai bakoitzaren ziklo/departamentuko taldeak finkatutako jarraipideak, ikastetxeko curriculum-proiektuan jasotakoa aplikatu asmoz.

Ikasturtearen hasieran, tutoreak oinarrizko helburu eta edukinen eta ebaluazio-irizpideen berri emango die ikasle eta gurasoei. Informazio hori idatziz egongo da eta ahoz adieraziko zaie ikasle nahiz gurasoei beraiekin egingo diren bileretan.

50. 1. Ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioa indibidualdua, jarraitua eta globala izango da eta taldean zuzenean eragiten duen irakasle-multzoak parte hartuko du bertan.

2. Aldi bakoitzaren bukaeran ikasleen ikaskuntzak eta irakas-iharduna ebaluatuko dira. Irakas-ihardueren programan aldi horiek eta ebaluazio-bilkurak zer egunetan egingo diren eta zer tresna erabiliko diren adierazi beharko da, curriculum-proiektuaren irizpideei jarraiki.

3. Tutoreak ikasle bakoitzari buruzko txosten bat egin beharko du. Txosten horrek barneko izaera izango du eta honakoak bilduko ditu:

- arlo desberdinen balorazioa,
- guztizko ebaluazioa, oinarrizko ikaskuntzak zenbateraino eskuratu diren eta aurkitu diren zailtasunak adieraziko direlarik,
- behar izanez gero, hezkuntza errefortzuak. Kasu horretan, aholkua eska dakioke ikastetxeko Laguntzako Zerbitzuari.

Tutoreari dagokio guztizko ebaluazioa egitea, alabaina horretarako kontuan hartuko du gainontzeko irakasleen iritzia. Guztizko ebaluazioa positiboa izan arren, zenbait arlotako balorazioa negatiboa izatea gerta daiteke.

Taldean irakasle batek baino gehiagok esku hartzen badu, tutoreak koordinatutako ebaluazio-bilkurak burutuko dira.

Tutoreak ikasketa-buruari igorriko dizkio ikasleen txostenak.

4. Tutoreak ikasle bakoitzari buruzko txosten idatzia egingo du eta gurasoei luzatuko die beraiekin egindako elkarrizketa pertsonaletan. Txosten horretan ikasleak arlo desberdinetan dituen aurrerapen eta eta eragozpenen berri emango da, erreferentzi gisa proposatutako ebaluazio-irizpideak hartuz. OHO bukatutakoan, tutoreak, ebaluazioaren gaineko informazioa ez ezik, orientabide gisako aholkuak ere luzatuko dizkie gurasoei.

5. Guztizko ebaluazio positiboa duten ikasle guztiek, zikloaren bukaeran, hurrengo ziklo edo etapara promozionatuko dute.

6. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, tutoreak, taldean esku hartu duten gainerako irakasleen iritzia kontuan hartuta, guztizko ebaluazio negatiboa duen ikasle batek promozionatzen ote duen edo beste ikasturte batez ziklo berean geratzen ote den erabakiko du.

Promozionatzen duela erabakiz gero, hezkuntza-errefortzuren bat proposatu beharko du, horretarako laguntzako zerbitzuaren aholkularitza izango duelarik. Ikasleak zikloan beste urtebetez gerazeko erabakia behin bakarrik har daiteke etapa osoan zehar. Erabaki hori hartu aurretik gurasoei adierazi eta horien aburuaren berri jaso behar da. Horrelako kasuren bat OHOk azken kurtsoan gertatzen bada, ikasleak beste urte batez egon daitezke zikloan, baldin eta OHO bukatzerakoan 16 urte bete ez badituzte eta, ikastetxeko ikasleen iritziz, Eskola-Graduatua eskuratzeko aukerak badituzte.

7. Ziklo bakoitzaren bukaeran, tutoreak dagokion aktan jasoko du arloetako kalifikazioen berri eta ikasleen guztizko ebaluazioaren berri; honela emango du haeien berri: Aurrerapen Egokia (AE), kasua hori bada, edo Hobetu Beharra (HB), kontrako kasuan. Horretaz gain, ikasleak hurrengo ziklo nahiz etapara promozionatzen ote duen ere adierazi beharko du aktan. Datu horiek berak adieraziko dira ikasle bakoitzaren ikasketa-espeditentean.

8. Ebaluazioa bukatu bezain laster, zikloko taldeak amaitu berri den aldia eta ikasleek lortutako kalifikazioak aztertuko ditu. Talde batean guztizko balorazio negatiboa duen ikasle-kopuruak %x gainditzen badu, edo eta curriculumeko arlo garrantzitsu batean nolabaiteko gabeziak daudela ikusiz gero, egoera azertu eta egoki iruditzen zaizkion neurriak proposatuko ditu. Horrelakoetan, aholkulariaren eta laguntzako irakasleen laguntza izango du zikloko taldeak.

Zikloko koordinatzaileak ikasleen ebaluazioei buruzko txosten-laburpen bat egingo du, zikloko taldeak egindako analisiaren berri eta proposatutako neurrien berri jasotzeko. Txosten hori ikasketa-buruari luzatuko dio.

9. Aipatutako informazio guztia irakasle-klaustroari jakinaraziko zaio, emaitzak eta ikusitako arazoak azter ditzan. Zuzendaritza-taldeak, hala nahi duelako edo eta irakas-talderen batek proposatu diolako ere, hobekuntzak proposa ditzake. Ikasturtearen bukaeran txosten bat egingo du eta ondokoak adieraziko ditu bertan: eskola-ihardueren garapena, ikasketen emaitzak, ikastetxearen funtzionamendua eta, azkenik, irakas-ihardueren programa betetzen ote den.

Ikasketa-buruak ebaluazioaren emaitzak, arazo orokorrak eta hobekuntza-proposamenak jakinaraziko dizkie OOGari, Batzorde Iraunkorrari eta Gurasoen Batzarrari.

(IEko ikastetxeetan)

50. 1. Umandi Ikastolan, ebaluazio eta promozioari buruzko arauak 1.993ko Maiatzaren 5eko Aginduak esaten duena beteko da.

51. Ikasleek eta horien guraso nahiz tutoreek guztizko ebaluazio eta promozioari buruz tutoreak hartutako erabakiak erreklamatzeko aukera dute. Halaber, edozein proba edo idatzizko lan zuzentzerakoan erabilitako irizpideak ezagutzeko eskubidea dute eta jarritako kalifikazioa erreklamatzekoa.

Tutoreak behaketa-erregistroak izango ditu, ikasleen lanei buruzko oharrak jasoko ditu, zikloan egindako proba idatziak gordeko ditu eta ebaluazio-bilkuraren aktak eskura izango ditu bere iritzi-erabakiak defendatzeko. Ikasleak eta gurasoek dokumentu horiek ikus-aztertzeke aukera izango dute egoki iruditzen zaizkien alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Tutorearekin akordioaren bat lortu ezean, ikastetxeko zuzendariarengana jo dezakete. Zuzendariak, ikasketa-buruaren laguntzaz eta, hala badagokio, beste irakasle batzuen laguntzaz, ikasle-gurasoen alegazioak eta irakaslearen dokumentazioa eta arrazoiak aztertuko ditu ezer erabaki baino lehen.

Ikasle-gurasoak ikastetxeko zuzendariaren erabakiarekin ados ez badaude, Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoaren aurrean aurkez dezakete erreklamazioa; hain zuzen, horrek hartuko du behin-betiko erabakia.

Aipatutako instantziaren batean lehen erabakia aldatuz gero, aktan eta ikaslearen espediente pertsonalean jasoko da horren berri.

Ikasleen iharduera bereziei buruzko arauak

52. Urteko programan onartutako iharduera osagarriak, curriculum-garapenaren zati baitira, derrigorrezkoak izango dira. Hala ere, gaisotasun arrazoiak medio edo medikuaren debekuz nahiz kontzientzia arrazoiak direla eta, iharduera horietan parte ez hartzeko aukera izango da. Gurasoek edo eta ikasleak berak, adin nagusikoa bada, tutoreari aurkeztuko diote iharduera horietatik salbuetsita geratzeko eskabidea eta eskaeraren arrazoiak azalduko dizkiote.

Horrelako ihardueraren bat burutzeak ikastetxeak ordain ezin dezakeen gasturik balekar, ikaslegoari diru-kopuru bat eska lekioko helburu horretarako.

53. Eskolaz kanpoko ihardueretan nahi duten ikasleek parte har dezakete. Ikasle guztiek izango dute iharduera horiek burutzeko aukera. Inolaz ere ez da iharduera horietan parte hartzeko zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-mekanismoak ezarriko.

Nolabaiteko kuota jartzekotan, burutu beharreko ihardueren kostuak ordaintzeko dirua eska dakieke ikastetxeak beren borondatez ari diren ikasleei, ekonomi arazoak dituztenentzako dirulaguntzak edo salbuhespenak aurrikusiko direlarik.

54. Umearen garapenean jolasak eta honetarako denbora libreak duen garrantzia ahaztu gabe eta honetan, jolasean hain zuzen ere, jardun behar duela umeak denbora handi bat (beti ere jolasa zentzu orokorrean hartuz) kontuan harturik, iruditzen zaigu:

- a) ikasketa pertsonal eta konstantearen ohitura garatzen hastea.
- b) ikasteko kondizio egokiak izaten joatea; materiala(hiztegia, kontsulta liburua...), lan egiteko tokia (mahaia, apalak...), inguruko kondizioak (isiltasuna, lasaitasuna...)
- d) eskolako lanen jarraipenerako ardura bat hartzen joatea.
- e) hurrengoko kurtsoen lanerako trebatzen joatea.

f) maila edo ziklo bakoitzean ezarritako helburuen betetzea bideratu.

Lan hau burutzeko ordu erdi erabiltzea aholkatuko zaie 4. mailan eta 20 minutu 3. mailan. Honetatik gain 15-20 minututako irakur saioak egitea eskatuko zaie.

Guzti hau aurrera ateratzeko ikasleei zuzendutako fitxa batzuk landuko dira. Bertan umeak kontuan izan behar dituen hainbat puntu landuko dira, hots, ikastolan dagoela, etxerakoan, etxeko lan txokoan, lanean ari dela eta ikastolara etorri aurrekoak.

Guzti hau aurkezpen egoki batetan.

Beste alde batetik ikasturte hasierako guraso bileran azalduko da gaia eta berauei zuzendutako idazki bat prestatuko da non gauza guzti hauek aipatuko diren.

Segurtasun eta higienari buruzko arauak

55. 1. Segurtasun eta higieneko batzordeak ikastetxeko larrialditarako plana egingo du edonolako istripuri aurrea hartzeko asmoz. Lan horretarako behar adina laguntza eska dezake aipatu batzordeak.

2. Ikastetxeak ongi hornitutako botikin bat izango du helduak iris daitezkeen leku batean. Ezbehar bat suertatzen den bakoitzean neurri egokiak hartuko dira.

3. Ikastetxean ezin da tabako edo alkoholik saldu. Ikasleek ezin dute ikastetxean erre. Erretzen duten helduentzat leku bereziak finkatuko dira, eta galerazita egongo da bertatik kanpo erretzea.

IV. XEDAPEN GEHIGARRIAK

A.I.A. aldatzeko arauak

A.I.A. aldatzeko erabakia Eskola Kontseiluari dagokio, halaber, aldaketa egiteko prozedura ere beroni dagokiolarik. Denboraldi nahiko batetan martxan egon ondoren eta/edo bere akatsak eta hutsuneak aztertu ondoren, honoko A.I.A. hau aldatu daiteke hauen eskariaz:

- a) Eskola Kontseiluko edozein estamentuetako plenoak.
- b) Eskola Kontseiluko kideen herenak.
- d) Eskola Komunitateko edozein kidek, aldaketa hau justifikatzen duen txostena eta proposamen berriak aldeztu aurretik aurkeztu ondoren.

Batzorde iraunkorrek hurrengoko Eskola Kontseiluko Gaiordenean sartuko du eskaera hori eta berau izango da gehiengo sinplez aldaketa hau tramiterako onartuko duena ala ez.